Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatezari, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena. Hautaketa-sistema.

1. Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da. Oposizio- eta lehiaketa-sistemak egingo dira bata bestearen ondoren, izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena ezartzeko.

2. Oposizio-lehiaketako puntuazio osoa bi fasetan lortutakoen batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du.

Bederatzigarrena. Oposizio-aldia.

Ondorengo ariketek osatuko dute oposizio-aldia:

Lehenengo ariketa: Izangai guztientzako derrigorrezkoa eta baztertzalea. I. eranskineko gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko test itxurako galdera teorikoak erantzun beharko dira.

Ariketa honi gehienez ere 20 puntu emango zaizkio eta gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du erantzun okerrekin zigorrik izango duten, eta ariketaren hasieran emango da horren berri.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzalea aurreko proba gainditu duten izangai guztientzat. II. Eranskineko gai-zerrendan sartutako gaiei eta lanpostuaren funtzioei buruz diseinatutako proba praktikoa eta/edo teoriko-praktikoa egin beharko da.

Ariketa honi gehienez ere 40 puntu emango zaizkio eta gainditzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

Hirugarren ariketa: Laugarren (4) hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak. Proba hori egitetik salbuetsita egongo dira 4. hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen diren izangaiak, euskararen jakite-maila egiaztatzen diren tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitze-ko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baldintzen arabera. Ariketa hau «Gai» / «Ez Gai» baloratuko da.

Hamargarrena. Oposizio-aldiko ariketak egitea.

1. Hasiera.

Oposizio-aldiko ariketak ezingo dira hasi deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik gutxienez hilabete igaro arte.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, behin ariketak zuzendu ondoren eta izangaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak izango diren gutxienezko puntuak lortzeko nahitaezko ezagueren maila edo atalasea ezarri ahal izango du.

2. Argitaratzea.

Oposizio-aldiko lehen ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutakoekin behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera, gutxienez zazpi egun balioduneko aurrerapenarekin. Oposizioaren gainerako ariketen iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren webgunean. Iragarki horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

3. Deialdia.

Izangaiei ariketa bakoitzerako dei bakarria egingo zaie, eta pertsona bat deitzen den unean edozein ariketatara aurkeztzen ez bada, ariketa berean eta hurrengoetan parte hartzeko esku-

Contra las resoluciones del Tribunal podrá interponerse recurso de alzada ante la Alcaldía en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Tablón de anuncios.

Octava. El sistema selectivo.

1. El sistema selectivo será el de concurso-oposición, que consistirá en la sucesiva celebración de los sistemas de oposición y concurso, para determinar la aptitud de las personas aspirantes y fijar el orden de prelación entre ellas.

2. La puntuación total del concurso-oposición será la suma de las obtenidas en sus dos fases y determinará el orden de prelación de las personas aspirantes.

Novena. Fase de Oposición.

La Fase de Oposición constará de los siguientes ejercicios:

Primer ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes, consistirá en contestar a preguntas teóricas, tipo test, sobres los temas incluidos en el temario del anexo I.

Se valorará sobre un máximo de 20 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superarlo.

Queda a criterio del Tribunal Calificador la penalización de las respuestas incorrectas, que se hará público al comienzo del ejercicio.

Segundo ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes que hayan superado la prueba anterior, consistirá en realizar una prueba práctica y/o teórico-práctica relacionada con el temario del anexo II y las funciones del puesto.

Se valorará sobre un máximo de 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superarlo.

Tercer ejercicio: Pruebas para acreditar el perfil lingüístico
4. Estarán exentos de realizar esta prueba las personas aspirantes que hayan acreditado estar en posesión del perfil lingüístico 4, en los términos establecidos en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas. Este ejercicio se calificará como «Apto» o «No Apto».

Décima. Desarrollo de las pruebas de Oposición.

1. Inicio.

Los ejercicios de la fase de oposición no podrán iniciarse hasta transcurrido, al menos, un mes desde la publicación de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

En cada uno de los ejercicios de la fase de oposición, una vez corregidos los mismos y antes de desvelar la identidad de los aspirantes y determinar la calificación de cada uno, el Tribunal podrá establecer el nivel o umbral de conocimientos necesario para la obtención del mínimo de puntos necesario para aprobar el ejercicio.

2. Publicación.

El lugar, fecha y hora de comienzo del primer ejercicio de la fase de Oposición se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal, conjuntamente con la resolución que apruebe la lista provisional de personas admitidas y excluidas al proceso selectivo, con una antelación no inferior a siete días hábiles. La publicación de los sucesivos anuncios de la celebración de los restantes ejercicios de la oposición, se efectuará por el Tribunal en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal. Estos anuncios deberán hacerse públicos con 48 horas, al menos, de antelación a la celebración del siguiente ejercicio.

3. Convocatoria.

Las personas aspirantes serán convocadas para cada ejercicio en llamamiento único, y la no presentación de una persona a cualquiera de los ejercicios en el momento de ser llamado de-

bidea galduko du automatikoki, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Arau bera aplikatuko zaie derrigorrezko edozein ariketa egiten hasi ondoren parte hartzen duten izangaiei. Probak ez egitea edo probak egitera atzerapenarekin azaltzea probei uko egitea izango da.

4. Identifikazioa.

Epaimahai kalifikatzaileak edozein momentutan eska dezake izangaiak euren burua identifikatzea. Horretarako, oposizio-ko ariketa guztietara Nortasun Agiriarekin edo Epaimahaiak izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duela erabakiko duen beste edozein dokumentu ofizialarekin (pasaporte, gidatzeko baimena, Atzerritarraren Nortasun zenbakia,...) aurkeztuko da izangaia.

5. Ariketen arteko tartea.

Oposizio-ko ariketa bakoitza amaitu eta hurrengoa hasiko den arte, gutxienez 72 ordu eta gehienez 45 egun balioduneko epea igaro beharko da. Bigarren epean ez da zenbatuko abuztua, ez baita balioduna izango ondorio hauetarako. Hala eta guztiz ere, eta egoki iritzi gero, epaimahaiak saio berean ariketa bat baino gehiago egitea erabaki dezake, bai eta hautagaiek egoki iritzi-ko ariketak irakurtzea ere. Irakurketa horiek publikoak izango dira eta behar bezala adierazitako egun eta orduetan egingo dira. Kasu horretan, 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da.

6. Erreklamazioak.

Kalifikazioak argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Hamaikagarrena. Lehiaketa-aldia.

Merezimenduak kalifikatzeko, oposizio-ko hirugarren ariketaren emaitzak argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea emango zaie izangaiei, eskabidean alegatutako merezimenduak egiazta ditzaten.

Eskabidean alde zuzenetik jaso ziren merezimenduak baino ez dira baloratuko, baldin eta, goian adierazitako epearen amaieran, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz behar bezala egiaztatu badira.

Deialdiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunera arte hartutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Lehiaketa-aldia ez da baztertzaila izango, eta lortutako puntuazioak ezin izango dira kontuan hartu oposizio-aldiko probak gainditzeko.

1. Lan-esperientzia. Gehienez, 20 puntu.

— Euskara irakasle gisa esperientzia, HABEren curriculumaren arabera: 0,60 puntu egiaztatuko 100 orduko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 15 puntu.

— Enpresa pribatuan euskara normalizatzeko eta sustatzeko lanetan emandako zerbitzuak: 0,20 puntu egiaztatuko hila-bete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 5 puntu.

Esperientzia zerbitzua eskaini den enpresaren edo administrazioaren ziurtagirien bidez egiaztatuko da eta horietan honakoak zehaztuko dira: kontratuaren iraupena edo izendapena, lanaldia eta betetako eginkizunak. Horrekin batera, izangaien lan-ibilbidearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emana.

Ez dira praktikak aintzat hartuko.

terminará automáticamente el decaimiento de su derecho a participar en el mismo ejercicio y en los sucesivos, quedando excluidos en consecuencia del proceso selectivo, salvo en los casos debidamente justificados y apreciados libremente por el Tribunal.

La misma regla se aplicará a aquellas personas aspirantes que concurran a la realización de cualquiera de los ejercicios obligatorios una vez iniciada la ejecución de los mismos. La ausencia o retraso a la realización de las pruebas tendrá la consideración de renuncia a las mismas.

4. Identificación.

El Tribunal calificador podrá en todo momento requerir a las personas aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrán de concurrir a la realización de cada ejercicio de la oposición provistos del DNI o cualquier otro documento oficial, que a juicio del tribunal resulte suficientemente acreditativo de la identidad de la persona aspirante (pasaporte, permiso de conducir, Número de Identidad de Extranjero etc.).

5. Intervalo entre ejercicios.

Desde la conclusión de cada ejercicio de la oposición y el comienzo del siguiente, deberá transcurrir un plazo mínimo de 72 horas y máximo de 45 días. No computará en el segundo plazo el mes de agosto que será inhábil a estos efectos. Ello, no obstante, y si así lo estima conveniente, el Tribunal podrá disponer la celebración simultánea de varios ejercicios en una misma sesión, así como la lectura de los ejercicios que estime convenientes por las personas aspirantes, que será pública y tendrá lugar en los días y horas que oportunamente señale, en cuyo caso deberá hacerlo público con la antelación de 48 horas.

6. Reclamaciones.

Se otorgará un plazo de tres días hábiles tras la publicación de las calificaciones para la presentación de reclamaciones en relación a las calificaciones otorgadas.

Undécima. Fase de Concurso.

Con el fin de proceder a la calificación de los méritos, tras la publicación de los resultados del tercer ejercicio de la oposición se establecerá un plazo de diez días hábiles para que las personas aspirantes acrediten los méritos alegados en la instancia.

Sólo serán valorados los méritos que previamente se hicieran constar en la solicitud y que, al término del plazo arriba indicado, se hayan acreditado debidamente, mediante la aportación de documentos originales o copias compulsadas.

Únicamente se valorarán los méritos contraídos hasta la fecha de publicación del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio ni las puntuaciones obtenidas en la misma podrán tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de oposición.

1. Experiencia laboral. Máximo, 20 puntos.

— Experiencia como profesor/a de euskera según el currículo de HABE: 0,6 puntos por cada 100 horas acreditadas (no se tendrán en cuenta fracciones inferiores), hasta un máximo de 15 puntos.

— Servicios prestado en trabajos de normalización y promoción del euskera en la empresa privada: 0,2 puntos por cada mes acreditado (no se tendrán en cuenta fracciones inferiores), hasta un máximo de 5 puntos.

La experiencia deberá ser acreditada mediante certificaciones de la Administración Pública o Empresa Privada en la que se hayan prestado servicios, especificándose la duración del contrato o nombramiento, la jornada y las funciones desempeñadas. Al mismo tiempo deberá acompañarse documento acreditativo de la vida laboral de las personas aspirantes emitido por el Instituto Nacional de la Seguridad Social.

Quedan excluidas las prácticas.

Dedikazioa lanaldi osokoa izan ez bada, dagokion hainbanaketa egingo da puntuazioan.

2. Prestakuntza eta ikasketak: Gehienez, 7 puntu.

Graduko ikasketak edo Lizentziatura Euskal Filologian, Euskal Ikasketetako Gradua, Psikopedagogia edo Pedagogia, 4 puntu. Beti ere, hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko erabili ez diren tituluak direnean.

Unibertsitateak emandako graduondoko ikasketak, euskararen irakaskuntzarekin edo erabilerarekin, itzulpenarekin, idazketarekin eta hizkuntza-plangintzarekin lotutakoak: puntu 1 graduondoko bakoitzeko, 3 puntu gehienez.

Alderdi hori dagokion erakunde ofizialak emandako titulua kopia konpultsatua edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.

Merezimenduen balorazioa www.legazpi.eus webgunean argitaratu ondoren hiru egun baliodunen epe bat emango da ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko.

Hamabigarrena. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.

1. Emaizak argitaratzea.

Oposizio-aldiko eta lehiaketa-aldiko ariketa bakoitzeko puntuazioak udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

2. Merezimenduen balorazioa.

Oposizio-aldia gainditu duten pertsonen lehiaketako merezimenduak baloratzeko, aurreko oinarrian ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuen batura hartuko da kontuan.

3. Azken kalifikazioa eta hurrenkera.

Azken kalifikazioa lortzeko, oposizio-aldian (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura) eta, hala badagokio, lehiaketa-aldian (merezimendu bakoitzeko puntuazioen batura) lortutako puntuazioak batuko dira; azken puntuazio horrek zehaztuko du plazak lortzeko hautagaien lehentasun-ordena.

Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, gaitasun bera badago, emakumeak % 40 baino gutxiago diren lanpostuetan lehentasuna emango zaie emakumezkoen. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituzten; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan araututakoa alde batera utzi gabe, berdinketak jarraitzen badu, hurrenkera ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-aldian puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da; bigarrenik, Legazpiko Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, Euskal Administrazio Publikoan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; eta laugarrenik, beste administrazio batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaz ebatziko da.

Hamahirugarrena. Ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda.

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak gainditu dituztenen behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du, dagozkien kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenaren arabera, iragarki-oholean eta udalaren webgunean, eta interesdunei 5 egun balioduneko epea

En caso de que la dedicación no sea a jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

2. Formación y estudios. Máximo, 7 puntos.

Estudios de Grado o Licenciatura en Filología vasca, grado en Estudios Vascos, Psicopedagogía o Pedagogía, 4 puntos. Siempre que se trate de títulos no utilizados para participar en el presente proceso de selección.

Estudios de postgrado emitido por la universidad, relacionados con la enseñanza o el uso del euskara, traducción, escritura y planificación lingüística, 1 punto por cada postgrado hasta un máximo de 3 puntos.

Este aspecto se acreditará mediante la presentación de la copia compulsada del título expedido por el organismo oficial correspondiente o mediante el certificado de haber abonado los derechos para la obtención.

Se otorgará un plazo de tres días hábiles tras la publicación de la valoración de los méritos en la página www.legazpi.eus, para la presentación de reclamaciones en relación a las calificaciones otorgadas.

Duodécima. Calificación del proceso selectivo.

1. Publicación resultados.

Las puntuaciones de cada ejercicio de la fase de oposición y de la fase de concurso, se harán públicas mediante el correspondiente anuncio en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal.

2. Valoración de los méritos.

La valoración de los méritos de Concurso a las personas que hayan superado la fase de oposición, vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo a los baremos establecidos en la base anterior.

3. La calificación final y orden de prelación.

La calificación final se obtendrá por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición (suma de las puntuaciones de cada uno de los ejercicios) y, en su caso, en la del concurso (suma de las puntuaciones de cada uno de los méritos) y determinará el orden de prelación de quienes opten a las plazas.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 27.2 de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca y artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a igualdad de capacitación, se dará prioridad a las mujeres, en la plaza de que se trate, cuando tenga una representación inferior al 40 %, salvo que concurran en otros candidatos motivos, que no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

Sin perjuicio de lo regulado en el párrafo anterior, en caso de persistir el empate, el orden se establecerá atendiendo, en primer lugar, a favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de oposición; en segundo lugar, de quien hubiera prestado más tiempo de servicios en el Ayuntamiento de Legazpi; en tercero, de quien hubiera prestado más tiempo de servicios en la Administración Pública Vasca; en cuarto, de quien hubiera prestado más tiempo de servicios en otras Administraciones Públicas y, en último, si persistiera el empate, este se resolverá a través de un sorteo.

Decimotercera. Relación de personas aprobadas.

El Tribunal Calificador aprobará y publicará la relación provisional de personas aprobadas, de acuerdo con las calificaciones correspondientes, por su orden de puntuación, en el Tablón de Anuncios y en la página web municipal, concediendo a las

emango die, argitaratzen denetik aurrera, egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta, alegaziorik aurkeztu bada, horiek ebatzi eta gero, onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratuko dira, eta zerrenda hori korporazioko lehendakariari bidaliko zaio (7/1985 Legearen 102. artikulua, 14/2000 Legeak aldatua), deitutako lanposturako hautatutako pertsona atxikitzeko.

Epaimahaiaren ebazpenak lotesleak izango dira atxikipena egitea dagokion organoarentzat, hargatik eragotzi gabe atxikipena berrikusteko aukera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hamalaugarrena. Agiriak aurkeztea.

1. Agirien zerrenda.

Deialdiko lanpostuari atxikitzeko proposatzen den pertsonak deialdian eskatzen diren gaitasun-baldintzen eta betekizunen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu Udaleko Giza Baliabideen Zerbitzuan, onartutakoen zerrenda argitaratu eta hurrengo 20 egun balioduneko epean. Zehazki, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta, edo jaiotza-ziurtagiria, dagokion Erregistro Zibila emana, edo AIZ (atzerritarren identifikazio-zenbakia) edo bizileku- eta lan-baimena.

2. Oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duen mediku-ziurtagiria. Desgaitasuna duten izangaiak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna dutela egiaztatzeko.

3. Kargu publikoetan aritzeko gaitasun gabetuta ez dagoela edo diziplina-espediteren baten bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertuta ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitortpena.

4. Administrazio publikoetako zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunean buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitortpena.

5. Titulua, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 43. artikulua arabera plaza eskuratzeko eskatzen dena.

2. Epea ez betetzea, agiriak ez aurkeztea edo baldintzak ez betetzea.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonak deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkezten ez bada, edo deialdian edo azterketa medikoan parte hartzeko eskatzen diren baldintzetako bat betetzen ez duela edo eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituela on-dorioztatzen bada, automatikoki baztertuko da, eta ezin izango zaio deitutako lanpostuari atxiki eta bere jarduera guztiak balio-gabetu egingo dira, hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatuz gero, eskabide-orian gezurra esateagatik izan lezaketen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Hamabosgarrena. Kontratua eta praktikaldia.

Alkateak praktika-kontratu bat sinatuko du epaimahai kalifikatzaileak proposatutako izangaiarekin, aurreko oinarriaren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu eta gero, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren

personas interesadas un plazo de 5 días hábiles, a partir de dicha publicación, para formular las reclamaciones que consideren oportunas.

Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas, las que, en su caso se hubieren presentado, se publicarán las relaciones definitivas de personas aprobadas, y remitirá dicha relación a la Presidenta de la Corporación (artículo 102 Ley 7/1985, modificado por Ley 14/2000) para proceder a la adscripción de la persona seleccionada para el puesto convocado.

Las resoluciones del Tribunal serán vinculantes para el órgano al que compete la adscripción, sin perjuicio de que este pueda proceder a su revisión conforme a lo previsto en la vigente Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Decimocuarta. Presentación de documentos.

1. Relación de documentos.

La persona propuesta para la adscripción al puesto convocado, presentará en el Servicio de Recursos Humanos del Ayuntamiento, dentro del plazo de 20 días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de la lista de aprobados, los documentos acreditativos de las condiciones de capacidad y requisitos exigidos en la convocatoria y, concretamente, los siguientes:

1. Fotocopia debidamente compulsada del Documento Nacional de Identidad o Certificado de Nacimiento expedido por el Registro Civil correspondiente, NIE o la Autorización de residencia y trabajo.

2. Certificado médico en el que se hará constar no padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el desempeño de las correspondientes funciones de conformidad con estas bases. Las personas aspirantes que tengan la condición de persona con discapacidad deberán presentar certificado oficial del órgano competente que acredite tal condición y su capacidad para el desempeño de las funciones propias del puesto.

3. Declaración de no hallarse inhabilitado para el ejercicio de cargos públicos y de no haber sido separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de la Administración Pública.

4. Declaración de no hallarse incurso/a en alguna de las causas de incompatibilidad previstas en la Ley 53/84, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.

5. El Título, fotocopia compulsada del mismo o justificante de haber abonado los derechos para su obtención, exigido para el acceso a la plaza conforme al artículo 43 de la Ley 6/89 de Función Pública Vasca.

2. Incumplimiento del plazo, falta de presentación de documentos o incumplimiento de los requisitos.

Si dentro del plazo indicado y salvo casos de fuerza mayor, la persona propuesta no presentara la documentación relativa al cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos para tomar parte en la convocatoria, o del examen de la misma o del reconocimiento médico se dedujera que carece de alguna de las condiciones o no reuniera los requisitos exigidos, ello determinará la automática exclusión de la misma, no pudiendo ser adscrita al puesto convocado y quedando anuladas todas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieran podido incurrir por falsedad en la instancia, solicitando tomar parte en el proceso selectivo.

Decimoquinta. Contrato y periodo de prácticas.

La Alcaldía suscribirá un contrato de prácticas con las personas aspirante de tal carácter propuesto por el Tribunal Calificador, una vez que haya aportado la documentación a la que se hace referencia en la base anterior, de acuerdo a los estableci-

30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Praktikaldia 3 hilabetekoa izango da, gehienez.

Praktikaldia amaitzean, azken txosten bat egingo dute gora-koek edo, hala badagokio, zuzeneko gorakoek, praktikaldiari buruz, beren eskubideei dagozkien alegazioak edo oharra egin ahal izan ditzaten. Praktikaldiaren ebaluazio hori gai edo ez-gai kalifikatuko da.

Hautatuak praktikaldia gainditzen ez badu, lanpostuari atxikitze eskubide guztiak galduko ditu, arrazoiutako erabaki baten bidez.

Hamaseigarrena. Kontrata sinatzea eta lanpostuari atxikitzea.

Praktikaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, eta toki-korporazioko organo eskudunak proposatuta, deitutako lanpostuari atxikiko zaio. Atxikipena interesdunari jakinaraziko zaio eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki-taulan eta udal webgunean argitaratuko da.

Behin betiko atxikitako pertsonak kontratua sinatu beharko du hamabost egun balioduneko epean, deitutako lanpostura atxikita dagoela jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Adierazitako epean kontratua sinatzen ez dutenek, justifikatutako arrazoirik gabe, karguari uko egiten diotela ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, Alkatetzak atxikipen-proposamena egingo du hautaketa-prozesu osoa gainditu eta uko egite horren ondorioz deitutako lanpostu-kopuruan sartzen direnen alde.

Hamazazpigarrena. Aldi baterako lan-poltsa.

Oposizio-aldia gainditu duten izangaien zerrendak irakasle-lanpostuetako beharrak betetzeko balioko du, Legazpiko Udaleko lan-poltsak kudeatzeko araudian aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Hemezortzigarrena. Gorabeherak, aurkaratzeak.

Epaimahaia gaiturik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabeheretan lehiaketa-oposizioaren garapen onerako beharrezko erabakiak hartzeko.

Interesdunek deialdia, haren oinarriak eta horren eta Epaimahaiaren jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

I. ERANSKINA

1. Udal Organoak: alkatea, alkateordea, Udalbatzarra eta Tokiko Gobernu-batzordea. (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena; II. Titulua, II. kapitulua).
2. Tokiko korporazioen zerbitzura dauden langileak. Motak. Eskubideak eta betebeharrak. (Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateratua onartu duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretua, II. Titulua, I. kapitulua; III. Titulua, I. kapitulua).
3. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. (IV. Titulua, I, II, III, IV, V eta VI. kapitulua).

do en el artículo 61.5 del Del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.

El período de prácticas tendrá una duración máxima de 3 meses.

A la finalización del periodo de prácticas se elevará un informe final, por la persona superior o en su caso superiores inmediatas, sobre el periodo de prácticas para que se puedan formular las alegaciones u observaciones que a su derecho correspondan. Esta evaluación del periodo de prácticas se calificará como apto o no apto.

Si la persona seleccionada no superase el referido período de prácticas, perderá todos los derechos a su adscripción al puesto de trabajo mediante acuerdo motivado.

Decimosexta. Suscripción del contrato y adscripción al puesto.

Dentro del mes siguiente al de la finalización del período de prácticas, y a propuesta del órgano competente de Corporación Local, se procederá a efectuar la adscripción al puesto convocado. Ello se notificará a el/la interesado/a y se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y la página web municipal.

La persona adscrita definitivamente deberá firmar el contrato, dentro de los quince días hábiles siguientes a contar desde aquél en que le sea notificada su adscripción al puesto convocado.

Se entenderá que quienes no suscriban el contrato en el plazo indicado, sin causa justificada, renuncian al cargo, decayendo en todos sus derechos. En este caso, la Alcaldía formulará propuesta de adscripción a favor de quienes, habiendo superado la totalidad del proceso selectivo, tuvieran cabida en el número de plazas convocadas a consecuencia de la referida renuncia.

Decimoséptima. Bolsa de trabajo temporal.

La lista con las personas aspirantes que hubieran superado la fase de oposición servirá para la cobertura de necesidades en puestos de Profesor/a, de conformidad con lo previsto en la Normativa para la Gestión de las Bolsas de Trabajo en el Ayuntamiento de Legazpi.

Decimooctava. Incidencias, Impugnaciones.

El Tribunal quedará facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden y perfecto desarrollo del Concurso-Oposición libre en todo lo no previsto en estas Bases.

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ésta y de las actuaciones del Tribunal, podrán ser impugnadas por las personas interesadas en los casos y en la forma establecida por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

ANEXO I

1. Órganos municipales: alcaldía, teniente de alcalde, pleno municipal y junta de gobierno local. (Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, Tit. II, Cap. II).
2. El personal al servicio de las corporaciones locales. Clases. Derechos y deberes. (Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, Tit. II Cap. I, Tit. III. Cap. I).
3. Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. (Tit. IV, Cap. I, II, III, IV, V, VI).

4. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Izaera Pertsonaleko datuen babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. (I. titulua, II. titulua, III. titulua).
5. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. (Atariko titulua).
6. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrikoa.
7. 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena. 15.1 artikulua eta V. titulua, «Hizkuntza normalizazioa».
8. Lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak (86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteo herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena). II. atalburua.
9. Administrazio-atalen sailkapena. Helburuen eskala. Euskararen erabilera normalizatzeko planak (86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteo herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena). III. atalburua.
10. Derrigortasun-daten zehaztea (86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteo herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena). IV. atalburua.
11. Baliokidetasunak eta salbuespen-arauak (86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteo herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena). VII. atalburua.
12. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala eta Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa). I. titulua, 6. eta 7. artikulua.
13. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Xedea eta printzipio gidariak (I. kapitulua, 1. eta 5. artikulua).
14. Hizkuntzaren erabilera erakundeetan eta administrazioan. Lan-hizkuntza (179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa). III. kapituluko 2. atala.
15. Hizkuntzaren erabilera erakundeetan eta administrazioan. Zerbitzu-hizkuntza (179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa). III. kapituluko 3. atala.

II. ERANSKINA

GAI ESPEZIFIKOAK

- A. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa. https://www.habeeuskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf.
16. Markoa bere politika eta hezkuntza testuinguruan.
17. Ekintzara bideratutako ikuspegia.
18. Hizkuntza gaitasuna neurtzeko erreferentzia maila bateratuak.
19. Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza.
20. Erreferentzia maila bateratuak.
21. Hizkuntza erabileraren testuingurua.
22. Komunikazio-gaiak.
23. Komunikazio atazak eta asmoak.

4. Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. (Tit. I, Tit. II, Tit. III).
5. Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. (Título Preliminar).
6. Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del Euskera.
7. Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca: artículo 15.1 y Título V, «Normalización lingüística».
8. Perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo (Decreto 86/1997, de 15 abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). II. capítulo.
9. Clasificación de unidades administrativas. Escala de objetivos. Planes de normalización del uso del euskera (Decreto 86/1997, de 15 abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). III. capítulo.
10. Determinación de preceptividades (Decreto 86/1997, de 15 abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). IV. capítulo.
11. Convalidaciones y régimen de exenciones (Decreto 86/1997, de 15 abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). VII. capítulo.
12. Lengua oficial de las entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y competencias de las entidades locales y de los municipios respecto al uso del euskera (Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi). I. título, artículos 6 y 7.
13. Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi. Objetivo y principios rectores (capítulo 1. artículos 1 y 5).
14. Uso institucional y administrativo. Lengua de trabajo (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi). Capítulo III. Sección 2.
15. Uso institucional y administrativo. Lengua de servicio (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi). Capítulo III, Sección 3.

ANEXO II

TEMAS ESPECÍFICOS

- A. Marco europeo de referencia para el aprendizaje, la enseñanza y la evaluación de las lenguas. https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf.
16. El Marco en su contexto político y educativo.
17. Enfoque orientado a la acción.
18. Niveles de referencia comunes para medir la competencia lingüística.
19. Aprendizaje y enseñanza del idioma.
20. Niveles de referencia comunes.
21. Contexto de uso de la lengua.
22. Temas de comunicación.
23. Tareas e intenciones de comunicación.

24. Hizkuntzen komunikazio jarduerak eta estrategiak.
25. Hizkuntzaren komunikazio prozesuak.
26. Testuak.
27. Erabiltzailearen gaitasun orokorrak.
28. Komunikazio gaitasunak.
29. Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza.
30. Atazen deskribapena.
31. Ataza gauzatzea.
32. Atazen zailtasuna.
33. Dibertsifikazio linguistikoa eta curriculuma.
34. Erreferentzia markoa ebaluaziorako tresna gisa.
35. Ebaluazio motak.
36. Ebaluazio bideragarria eta meta-sistema.

B. Helduen euskalduntzearen oinarriko curriculuma. HEOC. https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf.

37. Curriculumaren oinarriak.
38. Helduen euskalduntzearen mailak eta azpimailak.
39. Helburuak. Ekintza komunikatiboa, ikaskuntzaren abiapuntua eta ardatza.
40. Gaitasun soziolinguistikoaren garapena.
41. Gaitasun testualaren garapena.
42. Gaitasun linguistikoaren garapena.
43. Gaitasun estrategikoa.
44. Ebaluazioa.
45. Ildo metodologikoak.
46. Helburuak mailaz maila.

C. Euskara mailen egjatzatzea. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003876e.pdf>.

47. Deialdi irekiak eta itxiak.
48. Parte hartzeko baldintzak.
49. Jarraibideak.
50. Ebaluazio irizpideak.
51. Ebaluaziorako garaiak.
52. Diagnostikoa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.
53. Portfolioa.
54. Egjatzagiriaren baliokidetzak.
55. Hobe sistema.

D. Irakasbil. <http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/forum/view.php?f=95079>.

56. Edukia.
57. Baliabideak.

E. Irakasbil. <https://www.ikasbil.eus/eu/home>.

58. Edukia.
59. Baliabideak.

F. Bestelakoak.

60. Legazpi herriaren inguruko ezagutzak. www.legazpi.eus.

24. Actividades y estrategias de comunicación lingüística.
25. Procesos de comunicación lingüística.
26. Textos.
27. Capacidades generales del usuario.
28. Capacidades de comunicación.
29. Aprendizaje y enseñanza del idioma.
30. Descripción de las tareas.
31. Ejecución de la tarea.
32. Dificultad de la tarea.
33. Diversificación lingüística y curriculum.
34. El marco de referencia como herramienta de evaluación.
35. Clases de evaluación.
36. Evaluación viable y meta-sistema.

B. Curriculum básico de la euskaldunización de adultos. HEOC. https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf.

37. Bases del curriculum.
38. Niveles y subniveles en la euskaldunización de adultos.
39. Objetivos. Acción comunicativa, punto de partida y eje del aprendizaje.
40. Desarrollo de la capacidad sociolingüística.
41. Desarrollo de la capacidad textual.
42. Desarrollo de la capacidad lingüística.
43. Capacidad estratégica.
44. Evaluación.
45. Líneas metodológicas.
46. Objetivos por niveles.

C. Certificación de los niveles de euskera. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003876e.pdf>.

47. Convocatorias abiertas y cerradas.
48. Condiciones de participación.
49. Instrucciones.
50. Criterios de evaluación.
51. Tiempos para la evaluación.
52. Diagnóstico, co-evaluación y heteroevaluación.
53. Portfolio.
54. Equivalencia de certificados.
55. Sistema de mejora.

D. Irakasbil. <http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/forum/view.php?f=95079>.

56. Contenido.
57. Recursos.

E. Irakasbil. <https://www.ikasbil.eus/eu/home>.

58. Contenido.
59. Recursos.

F. Otros.

60. Conocimiento sobre el municipio de Legazpi. www.legazpi.eus.

***Arau-erreferentziak informazio gisa ematen dira, eta hautaketa-prozesu honetako izangaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Ezagutzea eskatuko den araudia, deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

***Las referencias normativas se facilitan con carácter informativo, siendo en su caso, responsabilidad de los aspirantes del presente proceso selectivo, la permanente adecuación y actualización de la normativa facilitada. La normativa cuyo conocimiento se exigirá, será la vigente a la fecha de publicación de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.